**Hiztegi azterketa** — ***Lagun izoztua*** Joseba Sarrionandia • Elkar

Izen-deiturak: ............................................ Maila-taldea: ..................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: .............. puntu.

Zuzen: 

Nota: 

| | |
|---|---|
| **albait -en** | «Goio izoztu egin da. Ea **albait arinen** bisitatu ahal duzun.» |
| **auskalo** | «Goio izoztu egin dela eta, **auskalo** zer adierazi nahi duen Josenek izoztu horrekin.» |
| **panga** | «...70 kordoba ordaindu dut Managuatik El Ramara autobusa, 120 kordoba El Ramatik Bluefieldsera **panga**.» |
| **dandar** | «...hiru oilo saskian, elkarren kontra, luma multzoa dardaraka, burua hegalpean gordeta, **dandarra** gora, uzki uzkurtu eta arrosa kolorekoak agerian.» |
| **saski** | «...alboan, hiru oilo **saskian**, elkarren kontra, luma multzoa dardaraka, burua hegalpean gordeta, dandarra gora, uzki uzkurtu eta arrosa kolorekoak agerian.» |
| **uzkurtu** | «...hiru oilo saskian, elkarren kontra, luma multzoa dardaraka, burua hegalpean gordeta, dandarra gora, uzki **uzkurtu** eta arrosa kolorekoak agerian.» |
| **bon** | «Bluefieldsen gaude eta moilan ere reggae entzuten da, eta **bon** eros daiteke.» |
| **moila** | «Bluefieldsen gaude eta **moilan** ere reggae entzuten da, eta bon eros daiteke.» |
| **txantxo** | «Erriberako arboletan ahate **txantxoak** eguzkitan lehortzen dira...» |
| **zerrakin** | «Hara hor kaoba enbor sendoak esperoan, zerraren alboan **zerrakina** pilatzen den artean...» |
| **zipote** | «Sukalde ilunetik **zipote** bat agertu da ezari-ezarian, beltzarana, oinutsik.» |
| **ezari-ezarian** | «Sukalde ilunetik zipote bat agertu da **ezari-ezarian**, beltzarana, oinutsik.» |
| **lastaira** | «Euria atertu duenean, Gorria bere aulkitik jaiki, **lastairan** etzan eta animalia nekatuaren moduan loak hartu duela iruditu zaidanean...» |
| **koartza** | «...eta han bazterrean **koartzek** beren sama zuria luzatzen dute espermazko ilargirantz.» |
| **zirimola** | «Uretan zurrunbiloa entzuten da eta **zirimolak**, bi kaiman bata bestearekin borrokan.» |
| **buruka** | «Eta hortxe bertan etxaurreko moilan lotuta dagoen txalupa **buruka** ari da enbor ustelduen kontra.» |
| **urazal** | «...urpean desagertu da orain, eta burbuila batzuk utzi ditu **urazal** barean, eta burbuilak ere laster ezabatuko dira ilargiaren jabegoa ematen duen ur ispiluan.» |
| **isla** | «Eta Beholden auzoko eskaparateen kristalean ezagutu dut nire **isla**, erosketan...» |
| **arraildura** | «Ibaiko islara itzultzean, harresi erdi eroriaren **arrailduran** iguana bat ikusi dut (...) hazizurriak dituela eta gargarak egiten.» |
| **hazizurri** | «Ibaiko islara itzultzean, harresi erdi eroriaren arrailduran iguana bat ikusi dut (...) **hazizurriak** dituela eta gargarak egiten.» |

| Hiztegi azterketa — *Lagun izoztua* Joseba Sarrionandia • Elkar | |
|---|---|
| Izen-deiturak: ............ Maila-taldea: ............ | Zuzen: |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. | |
| Azterketa honen balioa: ............ puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **joritasun** | «...eta hemen behean geratuko da Gorria gaixorik, **joritasunaren** basamortu eta ahanzturaren jungla sakon honetan.» |
| **palenke** | «'Guretzat edozein leku duk **palenkea**!' dio Armandok.» |
| **ehun** | «Eta ni atepeko alfonbra gogoan, Bluefields umeleko zapata bustientzako **ehun** baldartu hura.» |
| **apatx** | «Eta izarak, haizearen **apatxek** astindua, bi makilaren artean lotutako uhina ematen du.» |
| **umel** | «Eta ni atepeko alfonbra gogoan, Bluefields **umeleko** zapata bustientzako ehun baldartu hura.» |
| **baldartu** | «Eta ni atepeko alfonbra gogoan, Bluefields umeleko zapata bustientzako ehun **baldartu** hura.» |
| **uhin** | «Eta izarak, haizearen apatxek astindua, bi makilaren artean lotutako **uhina** ematen du.» |
| **babarrun** | «Arroz eta **babarrun** entsalada prestatu dut afarirako.» |
| **maneatu** | «...tomate gordun zatitxoak erantsi eta tipulin txikituarekin, piperbeltzarekin, olioarekin eta gatzarekin **maneatu**.» |
| **niagara** | «Jaiki, irratia piztu eta eguneko albiste **niagara** entzunez egon naiz ia ordubetez.» |
| **enparauak** | «Belarrietatik eskegi dizkidate inflazioak, autobideko hilak (...) eta **enparauak**, harik eta irratia amatatu eta liburua altzoan hartu dudan arte.» |
| **altzo** | «Belarrietatik eskegi dizkidate inflazioak, autobideko hilak (...) eta enparauak, harik eta irratia amatatu eta liburua **altzoan** hartu dudan arte.» |
| **amniotiko** | «...Managua hiri barreiatuko kaleetan barrena ibili naiz, zalantzan, likido **amniotikoan** murgilduta bezala.» |
| **egundo** | «Eta beti dira zatiak, proiektuak, entseguak, **egundo** osatuko ez diren zirriborroak.» |
| **kriptiko** | «Ba hi ere nahiko **kriptiko** hago gaur, neska!» |
| **artega** | «Uda goiza izan arren, lainotsua eta goibela zen eta Goio **artega** ibili zen hilobien artetik...» |
| **atondu** | «Amak lata ur berri eta lore berriekin **atontzen** zuen artean...» |
| **ataut** | «**Atauta** zulora jaitsi, hormahobian sartu eta tapa betirako ixtea.» |
| **gogaitua** | «...haien aurpegietan Jainko **gogaituaren** keinua islatzen zela sumatu zuen.» |
| **sumatu** | «...haien aurpegietan Jainko gogaituaren keinua islatzen zela **sumatu** zuen.» |

| Hiztegi azterketa — *Lagun izoztua* Joseba Sarrionandia • Elkar | Zuzen: |
|---|---|
| Izen-deiturak: ........................ Maila-taldea: ............ | Nota: |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. Azterketa honen balioa: .......... puntu. | |

| | |
|---|---|
| **nasa** | «Beheko aldeko **nasa** hartu eta Harriandi barreneraino heldu zen...» |
| **gabika** | «Han buelta eman eta etxera, **Gabika** kikildu baten moduan.» |
| **lohihartzeko** | «Ezagutzen zuen, Andres, arrantzalea zen, **lohihartzekoak** erantzi gabe zituen oraindik.» |
| **nahinora** | «Gizona etxera etortzen hasi zenetik Goio libreagoa zen **nahinora** joateko, Zoaz kalera gura badozu lakoak entzuten zituen estreinakoz.» |
| **lakoak** | «Gizona etxera etortzen hasi zenetik Goio libreagoa zen nahinora joateko, Zoaz kalera gura badozu **lakoak** entzuten zituen estreinakoz.» |
| **estreinakoz** | «Gizona etxera etortzen hasi zenetik Goio libreagoa zen nahinora joateko, Zoaz kalera gura badozu lakoak entzuten zituen **estreinakoz**.» |
| **mami** | «...ikara bat zabaldu zitzaion (...) soinetik paparrean gora bururaino, eta zirrikituren baten bila igotzen ziren atzamar **mamietaraino**.» |
| **hankalatraba** | «Eta ama zangoan zabaldu eta gizonaren sabelean **hankalatraba** jarri zen, besoak oso gogor atxikita gizonaren bizkar gainean...» |
| **arratsaldepe** | «Bunkerraren ondoko harrietan eseri eta **arratsaldepean**, itsasoa han behean dardaraka ikusten zuen artean...» |
| **babo-baboa geratu** | «Juan Bautistak erretzerakoan ohitura zuen **babo-baboa geratzekoa**, putz egin eta keari begira.» |
| **igande pausoz** | «...eta poltsikoa diruz beterik izango zutela, munduan zehar **igande pausoz** ibiltzeko moduan.» |
| **enbarazu** | «Bere **enbarazuaren** arrazoia izenik gabeko tramankulu hura zen, eta ez zion izenik lotzen...» |
| **itolarri** | «...koloreak galdurik, aurpegiak okerturik, birikak errementatu beharrean. **Itolarriarekin** irten ziren azkenerako.» |
| **dirdiraka** | «...arratsean txalupa batzuetako bonbillak ikusten zituen (...) munduaren bihotz ilunaren taupadengatik osatzeen ziren olatuen arabera **dirdiraka**.» |
| **orbain** | «...amak hartu zion eskua eta zauri haren ezpain josiak laztanarazi zizkion, eta **orbaina** leuna iruditu zitzaion.» |
| **istingatsu** | «Eta Bluefields **istingatsu** hau uztera goaz.» |
| **karnata** | «Agure batek soka bat eusten du, uretan uhin zirkularren erdian galtzen dena, arrainen batek bere **karnata** topatuko duelakoan.» |
| **uher** | «Ura epela da eta **uherra**, hotzitzen ari den zopa bezalaxe.» |
| **frankobordo** | «Kargaontzia berandu eta beteegi heldu da, **frankobordoa** uretan murgilduta baitu.» |
| **zirkinka** | «Garabi handien besoak ontzi merkanteen gainean makurturik **zirkinka** ari dira, zamak deskargatzen edo kargatzen.» |

| Hiztegi azterketa — *Lagun izoztua* Joseba Sarrionandia • Elkar | |
|---|---|
| Izen-deiturak: .................................... Maila-taldea: .................. | Zuzen: |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. Azterketa honen balioa: ........... puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **zirrindola** | «Buda Amandrea ematen du galipotezko ama edo amama dirdaitsu horrek, koloretako painelua buruan eta **zirrindola** doratuak belarrietatik dilindan.» |
| **galipot** | «Buda Amandrea ematen du **galipotezko** ama edo amama dirdaitsu horrek, koloretako painelua buruan eta zirrindola doratuak belarrietatik dilindan.» |
| **dilindan** | «Buda Amandrea ematen du galipotezko ama edo amama dirdaitsu horrek, koloretako painelua buruan eta zirrindola doratuak belarrietatik **dilindan**.» |
| **narrastasun** | «'Bi-mila, e-kain-aren he-mere-tzia', irakurri du umeak, irakurtzen ikasi berrien **narrastasunarekin**.» |
| **berbaro** | «...baina gurpilen jirabirak iradokitako **berbaroa** ere apur bat irreala da...» |
| **amildu** | «...entzun dut distortsionaturik, luzaturik, bigunki **amiltzen** naizen artean.» |
| **iraulki** | «Han, **iraulkitik** jaitsarazi eta beste lau presorekin batera ilaran jarri gaituzte eguzkipean...» |
| **galapan** | «Bi zakur alsaziar heldu dira aldats behera **galapan**.» |
| **atarte** | «**Atarte** zabaletik sartu eta, barruan, ardi larruzkoa ematen duen alfonbra zuria zapalduz sartu gara salara...» |
| **laratz** | «...hara hor beheko sua, tigre disekatua, **laratza**, malboro paketea, hauspoa, betamax, dena nahastean eta ostetasun nabarmenean.» |
| **hauspo** | «...hara hor beheko sua, tigre disekatua, laratza, malboro paketea, **hauspoa**, betamax, dena nahastean eta ostetasun nabarmenean.» |
| **ostetasun** | «...hara hor beheko sua, tigre disekatua, laratza, malboro paketea, hauspoa, betamax, dena nahastean eta **ostetasun** nabarmenean.» |
| **bugainbilea** | «**Bugainbilearen** lore zurixka eta ubelak ikusten dira...» |
| **idulki** | «...marmolezko estatua klasikoak han-hemenka sakabanatuak, **idulkien** gainean goratuak, zuriak, gogoetariak.» |
| **ubel** | «Bugainbilearen lore zurixka eta **ubelak** ikusten dira...» |
| **gogoetari** | «...marmolezko estatua klasikoak han-hemenka sakabanatuak, idulkien gainean goratuak, zuriak, **gogoetariak**.» |
| **anatopiko** | «'Anakroniko hitzaren antzera esaten da **anatopikoa**,' esan dit (...) 'anakronikoa denboraz kanpo bizi den bezala, anatopikoa lekuz kanpo bizi da. Hemen zaudela han bizitzea.» |
| **ika-mika** | «Ez dut anatopiko hitzaren esanahia ulertzen, ezpada Imanolek bere aita defuntuarekin itzelezko **ikamika** duela.» |
| **ezpada** | «Ez dut anatopiko hitzaren esanahia ulertzen, **ezpada** Imanolek bere aita defuntuarekin itzelezko ikamika duela.» |
| **erretolika** | «Neska hau zure **erretolikarekin** gogaituko duzu!» |

| Hiztegi azterketa — *Lagun izoztua* Joseba Sarrionandia • Elkar | |
|---|---|
| Izen-deiturak: ............ Maila-taldea: ............ | Zuzen: |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. Azterketa honen balioa: ............ puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **azelakoak!** | «'Eta **azelakoak**!' diot nik, bugainbilearen lore zuri eta ubelak zapalduz goazen artean.» |
| **lupetz** | «'**Lupetz** artetik orroka...' dio Imanolek.» |
| **oguzi** | «...dio Imanolek bere euskaramoduan, 'ze ezin dabe hitz hori osorik **oguzi**...'» |
| **amultsu** | «Eta aireportuetan eta hegazkinetan entzuten diren moduko boz eme **amultsua** da.» |
| **letania** | «...eroen ilargi espermazkoari begira eta kilkerren **letania** logabea entzuten gau luzean zehar.» |
| **bare** | «Eta, bere begi geldoak bi **bareren** moduan erabiltzen dituela...» |
| **berbazaku** | «Bere **berbazaku** hutsetik, antzeman ezindako keinu batzuk dira bere erretolika guztia.» |
| **asundu** | «...Arantxaren begi **asunduen** abegikortasuna...» |
| **antzeman** | «Bere berbazaku hutsetik, **antzeman** ezindako keinu batzuk dira bere erretolika guztia.» |
| **erramu** | «'Abantean dena!' deiadar egin zien Juan Bautistak, popan zutik, patroiaren **erramuari** eutsirik.» |
| **aitama** | «Batzuetan erdi ezkutuan ibili behar izaten zuten, lehorretik **aitamen** deiadarrik entzun behar ez izateko...» |
| **badeutso!** | «'**Badeutso**! Badeutso!' esaten zuen Goiok bere lagunek bezala, arrantzaleek bezala, atzamarretan azkura sentitzen zuenean.» |
| **erdiesango** | «Eta arrainaren begiak uraren gainean ikusten zituenean, Harrapatu zaitut **erdiesango** zuen.» |
| **ufaldi** | «...mutiko guztiek ikasi nahi zuten txistumodua (...) hatzak mihiaren gainean edo (...) mihia sakatuz, **ufaldi** lastimosoak besterik sortzen ez zituztela.» |
| **kikunbera** | «Batak bestearen ostean egiten zuten istriborretik **kikunbera**.» |
| **tosta** | «...**tostan** arnasestuka, han hondartza bazterrean eguzkipean gilaz gora irribarrez eta esamesaka zeuden neskengana zelan hurbildu asmatu behar izaten |
| **istribor** | «Batak bestearen ostean egiten zuten **istriborretik** kikunbera.» |
| **gilaz gora** | «...tostan arnasestuka, han hondartza bazterrean eguzkipean **gilaz gora** irribarrez eta esamesaka zeuden neskengana zelan hurbildu asmatu behar izaten |
| **hagatik!** | «'Zer dakit ba nik. **Hagatik**!'» |
| **tirain** | «Baina Juan Bautistak ezin izan zuen batela lortu, eta igerian egiteko **tirain** handia zegoen.» |

**Hiztegi azterketa** — ***Lagun izoztua*** Joseba Sarrionandia • Elkar

Izen-deiturak: ........................................ Maila-taldea: ..................

Testuinguruа aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: .............. puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **jagi** | «Goio bere gordetegitik **jagi** eta irten zenerako Harriandiko bunker zaharreko aterpean eserita zeuden denak.» |
| **jotzekoa egin** | «...Goiok, lotsaz gorrituta, **jotzekoa egin** zion Agustini.» |
| **atoan** | «'Amatatu argi hori eta zoaz **atoan** ohera!'» |
| **sama** | «Gero toaila **saman** irten zen komunetik.» |
| **hurrupaka** | «...katilua ezpainetara eramaten zuen bakoitzean, kafesnean **hurrupaka** edanez, Goiok koilara sakatzen zuen oihal ziratuko loreen kontra.» |
| **ziratu** | «...katilua ezpainetara eramaten zuen bakoitzean, kafesnean hurrupaka edanez, Goiok koilara sakatzen zuen oihal **ziratuko** loreen kontra.» |
| **kitxua** | «Andreak bere ibilera gelditu gabe eta **kitxua** doinuko gaztelaniaz erantzun dit...» |
| **ttapa-ttapa** | «Andrea bere sonbreirutxoarekin, kipea bizkarrean urrundu eta **ttapa-ttapa** pauso arinka.» |
| **daun-daun** | «Atea **daun-daun** jo eta laster sumatu dut itzal bat leihoan.» |
| **kipe** | «Andrea bere sonbreirutxoarekin, **kipea** bizkarrean urrundu eta ttapa-ttapa pauso arinka.» |
| **urdinduta** | «Eta hor doa sukaldera, Andoni, ilea **urdinduta**, zahartua iruditu zaidana.» |
| **berbabide** | «Goizaldeko orduetan zehar hainbat **berbabide** egin eta logalearekin zabuka hasi nintzenean, baietz esanez, Andonik euskal ganbarara eraman ninduen.» |
| **zabuka** | «Goizaldeko orduetan zehar hainbat berbabide egin eta logalearekin **zabuka** hasi nintzenean, baietz esanez, Andonik euskal ganbarara eraman ninduen.» |
| **abisal** | «'Baina hura duela hogeita zazpi urte gertatu zen, Maribel, munduaren hasiera **abisalean**.'» |
| **freak** | «Gure arbasoak **freak** hutsak ziren.» |
| **on hutsa** | «**On hutsa** da gainera eta loti samarra. Honetan ez dakit nortara egin duen: aitatara edo amatara, biok zein baino zein ibiltzen garelako terreno horretan.» |
| **nortara egin** | «On hutsa da gainera eta loti samarra. Honetan ez dakit **nortara egin** duen: aitatara edo amatara, biok zein baino zein ibiltzen garelako terreno horretan.» |
| **aitatara egin** | «On hutsa da gainera eta loti samarra. Honetan ez dakit nortara egin duen: **aitatara** edo amatara, biok zein baino zein ibiltzen garelako terreno horretan.» |
| **muker** | «...plater eta liburu hauen artean ezkutaturik disimuluan ibili zela zoriona deitzen den animalia izu eta **muker** hori.» |
| **ederraren ederrez** | «Egun haiek bizitzaz eta memoriaz bete gintuzten eta **ederraren ederrez** ia gezurrezkoak iruditzen zaizkit.» |

**Hiztegi azterketa** — *Lagun izoztua* Joseba Sarrionandia • Elkar

Izen-deiturak: ........................................ Maila-taldea: ..................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: .................. puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **otu** | «**Otutzen** zait begi lausoz so egiten diogula denari, gure bizimoduaren argitasuna eta erabakikortasuna azalekoa dela eta gutako bakoitza mundu zarratua dela...» |
| **milikeria** | «Hemen erneguek, nahikariek, **milikeriek**, oihartzuna aurkituko dute...» |
| **lauso** | «Otutzen zait begi **lausoz** so egiten diogula denari, gure bizimoduaren argitasuna eta erabakikortasuna azalekoa dela eta gutako bakoitza mundu zarratua dela...» |
| **erabakikortasun** | «Otutzen zait begi lausoz so egiten diogula denari, gure bizimoduaren argitasuna eta **erabakikortasuna** azalekoa dela eta gutako bakoitza mundu zarratua dela.» |
| **nahiera** | «Hitz jokoak nik egitea da seguru asko gutxien gustatu zaiona, berak bai **nahieran** eta zigorrik gabe erabiltzen dituen arren.» |
| **ezkaratz** | «Baserrian, **ezkaratzeko** ate ostean, bere hazkundearen markak zeuden...» |
| **kodaina** | «Goiori tresna harrigarria iruditzen zitzaion **kodaina**.» |
| **zanga** | «Larre zabaleko **zanga** luzea saltatu eta, alboan iratzea eta sasia izan arren, pinu orriak alfonbraren modukoa eskaini zion.» |
| **sabai** | «Baserriraino eraman eta ahalik eta belar sikurik gehiena sartu behar zuten **sabaira**.» |
| **eskuare** | «...idiek ardilarrua buruan, aittitte painelua buruan, auzokoak **eskuarez** edo sardez ekinean.» |
| **iratze** | «Larre zabaleko zanga luzea saltatu eta, alboan **iratzea** eta sasia izan arren, pinu orriak alfonbraren modukoa eskaini zion.» |
| **sarde** | «...idiek ardi-larrua buruan, aittitte painelua buruan, auzokoak eskuarez edo **sardez** ekinean.» |
| **aio-aiomaka** | «...idiek aittitte akuiluaz eta **aio-aiomaka** aldamenetik gidari zutela.» |
| **troka** | «Hori guzti hori trintxera izan zen, han goiko Barrankutik beheko **troketaraino**.» |
| **andana** | «Egun batez, soldaduak harantz ezik, bestalderantz gehiago hasi ziren pasatzen, zaurituak ere **andanaka** zekartzatela...» |
| **azartatu** | «Goiok ez zuen umekeriatarako gogorik baina ia berez **azartatzen** zituen erantzunak...» |
| **gobernatu** | «...aittitte kortan ari zen berriro behiak **gobernatzen**.» |
| **iztaia** | «...aittitte aulki txikian eserita burua behiaren **iztaian** pausatuta topatu zuen.» |
| **begirakune** | «...Goioren begiek erretratuko haren **begirakune** artezarekin tope egin zuten...» |
| **arkanbele** | «...gauzak nahiko absurduak ziren berez, **arkanbeleak** esate baterako, eta kakalardo haietako bat hartu zuen eskuan...» |

| Hiztegi azterketa — *Lagun izoztua* Joseba Sarrionandia • Elkar | |
|---|---|
| Izen-deiturak: ........................ Maila-taldea: ........ | Zuzen: |
| Testuinguruari aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. Azterketa honen balioa: ........ puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **erestaldi** | «...igelak kroak-kroak entzun zituen, kilkerren **erestaldia**, eta geroago...» |
| **tope egin** | «...Goioren begiek erretratuko haren **begirakune** artezarekin tope egin zuten...» |
| **malguezin** | «Atezainak letreroa seinalatu zigun, **malguezin**, eskuan bere linterna alferrik piztuari eraginez...» |
| **oinordetutako** | «...asaba zaharrengandik naturalki **oinordetutako** ohitura balitz bezala.» |
| **kausitu** | «Eta telebistan (....) jende famatua, giro dotorea eta solas erakargarria **kausituko** ditu.» |
| **uluka** | «"Txakurrek jende arrotza izutzea zaunka lortzen ez dutenean, orduan **uluka** hasten dira..."» |
| **tximaluze** | «...eta gazte ilehori **tximaluzea** izanen da...» |
| **kuxkuxean** | «Orduan, bere neskalaguna logelako atetik **kuxkuxean** agertuko da.» |
| **zaparro** | «Zer, gure **zaparro** denborak gogoratzen dituk?» |
| **preterito** | «Ez diozu erantzungo eta bere oroimen **preteritoaren** erakusketarik egin gabe aldatuko du gaia Andonik...» |
| **ordu txiki** | «Gaueko **ordu txikietan** Andonik bakarrik utziko zaitu logelan...» |
| **ataka** | «Errekara bidean, hazi eginen dira amildegi arteko harkaitzak, zitaldu horma garai arteko **ataka** sakonak. Han joanen zarete denak okerka, bidea ezin arteztuz.» |
| **okerka** | «...bidean, hazi eginen dira amildegi arteko harkaitzak, zitaldu horma garai arteko ataka sakonak. Han joanen zarete denak **okerka**, bidea ezin arteztuz.» |
| **motots** | «Hamalau gizon biluzik, bele ile luzea **mototsean** bildua, bakoitza bere azken botilaren batekin...» |
| **txaktxatu** | «'Orain nire kokatxoa **txaktxatuko** dut,' esango du beste batek...» |
| **ostera arte** | «'Agur, Esteban, **ostera arte**,' esanen diozu ia oihuka.» |
| **lar** | «**Lar** goiz zen arren, ume ugari zegoen eskolako ate handien aurrean...» |
| **oilaur** | «...laugarrena errepikatzen ari zena, belaunburuak **oilaurrez** beterik zituena.» |
| **ortutsik** | «...eta ni ohe batetik bestera arineketan **ortutsik**, galtzetinok harrapatu arte.» |
| **itu** | «Lodia garondoan jo zuen, hain **itu** zabalarekin ezinezkoa baitzen huts egitea.» |

**Hiztegi azterketa** — ***Lagun izoztua*** Joseba Sarrionandia • Elkar

Izen-deiturak: ........................................ Maila-taldea: ....................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
Azterketa honen balioa: .............. puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **etxeorratz** | «Eraikin berriak, hodeiak urratzeko moduko **etxeorratzak**, fantasma erraldoi zigortuen gelditasunarekin.» |
| **puxika** | «...alkandora apur bat zabalduz zutituko da, eta orduan ikusiko duzu **puxika**. Maskuri horia sabel gainean lotuta, heriotza puxikaz joka helduko balitz |
| **izetuta** | «Ontzi batzuetako bonbillak **izetuta** daude oraindik, baina badia ilun, eta han malekoi parean topatuko duzu...» |
| **inkaminaria** | «Kristalak **inkaminariaren** abiltasun ustekabekoarekin xurgatu eta itzuliko dizu figura.» |
| **orpo** | «Malekoirantz joanen zara, txakurtxoa **orpotik** daramazula.» |
| **lubeta** | «Eta **lubeta** gainetik, txiza eginen duzu itsasora, luzaroan eta barreka, oso luzaroan.» |
| **malekoi** | «**Malekoirantz** joanen zara, txakurtxoa orpotik daramazula.» |
| **barrunbe** | «Kanpora irtetea ia debekatua zegoen, baina edifizio handi eta zahar haren **barrunbeak** ere debekatuta zeuden guretzat.» |
| **ezkoztatua** | «...lau lagun joan ginen eskaileretako edo pasillo luzeetako zoru **ezkoztatuan** draz-draz-draz eginez, ate zarratuak krik-kriz zabalduz.» |
| **berdotz** | «...Don Patricio deitzen zen, berrogeita hamarren bat urteko gizona, larru kolore beltzaran ia **berdotzekoa**, trajez jantzia.» |
| **ixtura** | «Futbola izan zen, Ikastetxeko **ixtura** hartan, indarrak husteko modu bakarra.» |
| **kabiltzar** | «**Kabiltzar** baten gainean eseri nintzen, burdinazko kabiltzarra arrantzontzi baten brankaraino luzatzen zen eta ontzi lotua urarekin mantso mugitzen zen.» |
| **ontsu** | «Uhinek, orain beltzago eta itsuago, barrako eta moilako harri berdotzak eta baporeen saihets **ontsuak** jotzen zituzten.» |
| **udare** | «Ate batzuk harantzago bonbilla bat zegoen, ergia ematen. Zain gorri ahul bat kristalezko **udarean**.» |
| **malko bat** | «'Kafea alarguna emango didazu ala?' esan zuen agureak (...) '**Malko bat** behintzat bota egiozu...'» |
| **zorrotada** | «Tabernaria erron botilarekin itzuli zen, kafera **zorrotada** bat botatzeko.» |
| **hondarpe** | «...itsaso horretan ur korronte arriskutsuak daude, eta **hondarpeak**, eta azken gerretako minak...» |
| **buia** | «'Horregatik dago hainbeste **buia**, eta buia lerroek seinalaturiko erretenetik nabigatu behar duzu.» |
| **itsumutil** | «Makina geldian! Itsumendu zuri hartan, radarra zen kapitainaren **itsumutila**. Geldiro jarraitzeko agindu zuen...» |
| **aihen** | «'Zer,' esan zuen agureak, '**aihenetan** ondo amarratuta utzi dituzue enbarkazioak?'» |

| Hiztegi azterketa — *Lagun izoztua* Joseba Sarrionandia • Elkar | Zuzen: |
|---|---|
| Izen-deiturak: ........................ Maila-taldea: ............ | |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.<br>Azterketa honen balioa: ........ puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **errime** | «Eta botila ardoaren inguruan kartetan hasi ziren, **errime** solasean.» |
| **zohardi** | «Eguraldi goibela iragarriko da eta, gau lasai eta **zohardiaren** ondoren (...) hego haize hozkirri batek joko du.» |
| **hozkirri** | «Eguraldi goibela iragarriko da eta, gau lasai eta zohardiaren ondoren (...) hego haize **hozkirri** batek joko du.» |
| **bits** | «Enbarkazioak ura branka bularraz jo eta erdibituko du (...) **bitsa** altxatuko du eta apar kizkurtu horrek (...) lorratz zurixka utziko du atzean.» |
| **apar** | «Enbarkazioak ura branka bularraz jo eta erdibituko du (...) bitsa altxatuko du eta **apar** kizkurtu horrek (...) lorratz zurixka utziko du atzean.» |
| **lorratz** | «Enbarkazioak ura branka bularraz jo eta erdibituko du (...) bitsa altxatuko du eta apar kizkurtu horrek (...) **lorratz** zurixka utziko du atzean.» |
| **kizkurtu** | «Enbarkazioak ura branka bularraz jo eta erdibituko du (...) bitsa altxatuko du eta apar **kizkurtu** horrek (...) lorratz zurixka utziko du atzean.» |
| **ostertz** | «Eta orduak geroago oskorria agertuko da, iluntzea orduko, oskorri ikaragarri gorria **ostertzean**...» |
| **orduko** | «Eta orduak geroago oskorria agertuko da, iluntzea **orduko**, oskorri ikaragarri gorria ostertzean...» |
| **zuaker** | «Eta erroak? Ez duzu errorik izango, ez badira enbarkazioaren altzairu eta plastikozko **zuaker** eta eustarriak.» |
| **kriseilu** | «Eguzkia kolore urdin berdekaraz ahaleginduko da noizean behin agertzen, baina nekez, erregairik gabeko **kriseiluaren** moduan.» |
| **olarro** | «Haize min eta zakarra egingo du eta itsasoak gogor jasoko ditu **olarroak** eta fumetak.» |
| **fumeta** | «Haize min eta zakarra egingo du eta itsasoak gogor jasoko ditu olarroak eta **fumetak**.» |
| **edanabarrean** | «'Beti ibiltzen da **edanabarrean**, trago baten ondoren laster beste bat...» |
| **zutoihal** | «Janzten zuen arropa zahar eta zarpailarekin, nazio derrotaturen baten **zutoihala** ematen zuen.» |
| **zarpail** | «Janzten zuen arropa zahar eta **zarpailarekin**, nazio derrotaturen baten zutoihala ematen zuen.» |
| **albait** | «Berak errona edaten zuen **albait**.» |
| **errekalada** | «Eta **errekalada** egingo duzue kaioen uhartean.» |
| **lema** | «Orduan, patroiak ohola erretiratuko du eta **lemara** itzuliko da trabesia jarraitzeko.» |
| **ospel** | «Pasillo **ospeletik** barrura sartuko zarete ilunetan, luzaroan joanen zarete, patio borobileraino.» |

Hiztegi azterketa — *Lagun izoztua* Joseba Sarrionandia • Elkar

Izen-deiturak: ................................ Maila-taldea: ..............

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: .............. puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **arkano** | «'Ondo hiltzeko bidea bilatu behar da...' esanen diozu, gogora **arkanoen** moduan helduko zaizkizun hitzak esanez.» |
| **lahar** | «**Lahar** makurtu horietan izanen dute habia islen gainean hegan dabiltzan hegazti ugariek.» |
| **elezahar** | «...ez duzue arima bila lehorrera inguratzen den txalupa zuriaren eta gringoaren **elezaharra** entzungo.» |
| **mamu** | «Goiz ailegatu nintzen arkupeetara, hogei gutxiagotan, eta bertan itxaron nuen, **mamuen** azpian.» |
| **bestiario** | «...edo auskalo ze sasoi ilunetatik zetorren ikaragarrizko **bestiario** hura erabilirik.» |
| **txikota** | «'Eman **txikota**!' esan zidan Juan Bautistak gero, batel barrura salto eginda.» |
| **ababor** | «**Ababorrera** egin genuen eta Harriandi paretik joan ginen (...) haizea arnastuz eta ezpainetan bilduriko gatza lamikatuz.» |
| **lamikatu** | «Ababorrera egin genuen eta Harriandi paretik joan ginen (...) haizea arnastuz eta ezpainetan bilduriko gatza **lamikatuz**.» |
| **barlobento** | «**Barlobento** haizearen aldea zen, afrontuko banda. Eta beste aldea, haizea jasotzen zuen aldea, sotabentoa edo haizebea deitzen zen.» |
| **ateko banda** | «Orduan ikasi nuen, baita ere, zer den **ateko banda** eta zer lehorreko banda. Eta toleta, eta broga, eta estropua, eta tosta.» |
| **sotabento** | «Barlobento haizearen aldea zen, afrontuko banda. Eta beste aldea, haizea jasotzen zuen aldea, **sotabentoa** edo haizebea deitzen zen.» |
| **lehorreko banda** | «Orduan ikasi nuen, baita ere, zer den ateko banda eta zer **lehorreko banda**. Eta toleta, eta broga, eta estropua, eta tosta.» |
| **toleta** | «Orduan ikasi nuen, baita ere, zer den ateko banda eta zer lehorreko banda. Eta **toleta**, eta broga, eta estropua, eta tosta.» |
| **broga** | «Orduan ikasi nuen, baita ere, zer den ateko banda eta zer lehorreko banda. Eta toleta, eta **broga**, eta estropua, eta tosta.» |
| **estropu** | «Orduan ikasi nuen, baita ere, zer den ateko banda eta zer lehorreko banda. Eta toleta, eta broga, eta **estropua**, eta tosta.» |
